BESTELAKO XEDAPENAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1036

1925/2011 EBAZPENA, abenduaren 22koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez defizit publikoa murrizteko ezohiko neurriak onartzen dituen maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Dekretuak eragindako sendagaien erosketa-prezioaren gaineko kenketa aplikatzea erabakitzen baita, abuztuaren 19ko 9/2011 ELD-aren bidez egindako aldaketaren arabera.

Ikusi da defizit publikoa murrizteko ezohiko neurriak onartzen dituen maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretua, zehazki horren 9. eta 10. artikuluak eta laugarren xedapen iragankorra eta azken xedapenetatik laugarrena, non pertsonak tratatzeko industrialki ekoiztutako sendagaiei dagokienez honako hau esaten baita:

9. artikulua.– Osasun Sistema Nazionaleko osasun-zerbitzuek erositako sendagaien gaineko kenketak.

Osasun Sistema Nazionalaren funts publikoen kargura ospitaleko farmazia-zerbitzuek, osasun-zentroek eta lehen mailako atentzioko egiturek erositako sendagaiei –pertsonak tratatzeko industrialki ekoiztutako sendagaiak– erosketa-prezioaren % 7,5eko kenketa aplikatuko zaie.

10. artikulua.– Kenketak aplikatzearen salbuespenak.

8. eta 9. artikuluetan ezarritako kenketak ez zaizkie sendagai generikoei aplikatuko, ez eta erreferentzia-prezioen sistema aplikatzeak eragindako sendagaiei ere, 8. artikuluko lehen idatzi-zatiko hirugarren paragrafoan ezartzen den salbuespena salbuespen.

Sendagai zurtzen kasuan, 8. eta 9. artikuluetan ezarritako kenketak % 4koak izango dira.

Laugarren xedapen iragankorra.– Sendagai eta osasun-produktuez hornitzeko, eta produktu horiek merkaturatu eta fakturatzeko behin-behineko erregimena.

Bi.– Errege Lege Dekretu honen 9. eta 10. artikuluetan ezarritako neurriak Osasun Sistema Nazionalaren funts publikoen kargura 2010eko ekainaren 1etik aurrera egindako erosketei aplikatuko zaizkie, honako erregimen berezi hauek barne hartuta: Estatuaren Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitatea (MUFACE), Indar Armatuen Institutu Soziala (ISFAS) eta Epailetzako Mutualitate Orokorra (MUGEJU).

Azken xedapenetatik laugarrena.– 8., 9. eta 10. artikuluetan ezarritako kenketek eragindako sendagaien zerrenda.

Farmazia eta Osasun Produktuen Zuzendaritza Nagusiak argitaratuko du eta eguneratuta edukiko Errege Lege Dekretu honek xedatutakoak eragindako sendagaien zerrenda, Osasun Sistema Nazionaleko farmazia-produktuen izendegiarekin batera.

Ikusi da abuztuaren 19ko 9/2011 Errege Lege Dekretua, zeinaren 4. artikuluak aurrekoa aldatzen baitu:

4. artikulua.– Maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuaren aldaketa (RCL 2010, 1396). Errege Lege Dekretu horren bidez, defizit publikoa murrizteko ezohiko neurriak hartu ziren.

Maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen da, defizit publikoa murrizteko ezohiko neurriak hartzeko dena. Aurrerantzean, artikulu horrek honako idazketa hau izango du:

«10. artikulua.– Kenketak aplikatzearen salbuespenak.

8. eta 9. artikuluetan ezarritako kenketak ez zaizkie sendagai generikoei aplikatuko, ez eta erreferentzia-prezioen sistema aplikatzeak eragindako sendagaiei ere, 8. artikuluko lehen idatzizatiko hirugarren paragrafoan ezartzen den salbuespena salbuespen.

Sendagai zurtzen kasuan, 8. eta 9. artikuluetan ezarritako kenketak % 4koak izango dira.

Bestalde, pertsonak tratatzeko industrialki ekoiztutako sendagaien kasuan, generikorik edota Espainian baimendutako bioantzekorik ez badago, barne hartuta ospitaleetan erabiltzekoak, funts publikoekin finantzatzeko erabakia hartu zenetik hamar urte pasatu badira, edo hamaika urte beste xede baterako erabiltzeko baimena badu, Europar Batasuneko kide diren estatuetan produktu-patentearen babesa duten sendagaien kasuan izan ezik, 8. eta 9. artikuluetan jasotako kenketak % 15ekoak izango dira, betiere jabetza industrialaren arloan sendagaiok salbuespenezko edo behin-behineko erregimenei atxikita ez egon eta dagokien Europar Batasuneko legeria euren araubide juridikoetan txertatu badute, eta titularrak merkaturatze-baimena duela egiaztatzen badu.

Errege Lege Dekretu berriaren helburu nagusia defizit publikoa murrizteko xedez Gobernuak martxan jarri dituen neurri fiskalak eta aurrekontu arlokoak aplikatzen jarraitzea eta horiek sendotzea da, bere egungo politika ekonomikoaren ezinbesteko lehentasuna baita.

Errege Lege Dekretu horren hitzaurrean esaten denez, neurri horiek baldintza beretsuetan aplikatu behar dira autonomia-erkidego guztietan, kalitatea, ekitatea, kohesioa eta sistemaren jasangarritasuna sustatuz, eta, beraz, neurri berri hauek lehendik aplikatzen zirenei gehitu behar zaizkie, ebazpena aldatu eta orain ematen den ebazpen honekin ordeztuz.

Arestian esandakoak Osakidetza-euskal osasun zerbitzuaren osasun-gastua kontrolatzen eta arrazionalizatzen lagunduko duenez, Zuzendaritza Nagusiaren ezinbesteko betebeharra da defizit publikoa murrizteko ezohiko neurriak berehala aplikatzen hasteko jarraibide zehatzak ematea.

Hori guztiagatik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta dekretu horren beraren 20. artikulua aplikatuz kontratazio gaietan legez eman zaizkion ahalmenekin bat eginez,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeek erositako sendagaien gainean ezarritako kenketak egiteko agintzea, I. eranskinean zehazten den moduan.

Bigarrena.– Kenketa horiek zein testuingurutan egingo diren zehaztea, honako hau kontuan hartuta:

1.– Pertsonak tratatzeko industrialki ekoiztutako sendagai guztiak sartzen dira, baldin eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren funts publikoen kargura eta Osakidetzako erakundeen bidez erosi badira, sendagai generikoak eta erreferentzia-prezioen sistema aplikatzeak eragindako

sendagaiak izan ezik. Multzo ez aktiboen parte diren sendagaiei aplikatuko zaizkie kenketak, baita erreferentzia-prezioen sisteman sartuta badaude ere.

2.– Sendagaiak erosteko erabilitako edozein administrazio-prozeduratik ateratako egungo prezioa izango da erosketa-prezioa, eta horrek honako hauei eragingo die:

● Modu zentralizatuan egindako erosketak:

o Kontratu bidezko eskaerak.

o Zuzenean egindako eskaerak.

● Modu ez zentralizatuan egindako erosketak:

o Kontratu bidezko eskaerak.

o Zuzenean egindako eskaerak.

Hirugarrena.– Ebazpen honetan emandako jarraibideak 2011ko azaroaren 1etik aurrera egindako erosketei aplikatuko zaizkie, betiere 9/2011 Errege Lege Dekretuaren Azken Xedapenetatik Laugarrenean xedatutakoari jarraituz lege horren Lehen Xedapen Gehigarriari dagokionez.

Ebazpen hau EHAAra bidaltzea argitaratzeko. Horretaz gain, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrian ere jarriko da informazioa, hornitzaileek eskura izan dezaten.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legearen 107., 114. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituz, ebazpen honen aurka –ez baitu administrazio-bidea amaitzen– gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera hilabeteko epean. Horretaz gain, egoki iritzitako beste edozein errekurtso ere jarri ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 22a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

I. ERANSKINA

I.– 2011ko azaroaren 1etik aurrera Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren funts publikoen kargura eta Osakidetzako erakundeen bidez erositako sendagaiei –pertsonak tratatzeko industrialki ekoiztutako sendagaiak– erosketa-prezioaren % 7,5eko kenketa aplikatuko zaie, eta sendagai zurtzen kasuan, berriz, kenketa % 4koa izango da.

II.– Aurreko paragrafoan jasotako % 7,5eko kenketa % 15ekoa izango da pertsonak tratatzeko industrialki ekoiztutako sendagaien kasuan, betiere Espainian baimendutako generikorik edo bioantzekorik ez badago sendagai horientzat.

Multzo honetan ospitaleetan erabiltzekoak sartuko dira, funts publikoekin finantzatzeko erabakia hartu zenetik hamar urte pasatu badira, edo hamaika urte, beste xede baterako erabiltzeko baimena badute, Europar Batasuneko kide diren estatuetan produktu-patentearen babesa duten sendagaien kasuan izan ezik, betiere jabetza industrialaren arloan sendagaiok salbuespenezko edo behin-behineko erregimenei atxikita egon ez eta dagokien Europar Batasuneko legeria euren araubide juridikoetan txertatu badute, eta titularrak merkaturatzeko baimena duen titularrak zirkunstantzia hori egiaztatzen badu.

Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak hilero argitaratzen duen informazio-zerrendan zehaztuko dira % 15eko kenketa aplikatuko zaien sendagaiak, http://www.msps.es/profesionales/farmacia/notasInfor.htm web-orrian, hain zuzen ere.

III.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, bereizi egin dira erosketa zentralizatuak eta ez zentralizatuak.

III.I.– Erosketa zentralizatua:

Modu zentralizatuan egindako erosketei dagokienez, 3 kasu egon daitezke:

1.– 2011ko azaroaren 1a baino lehen esleitutako espedienteetan, non esleipen-prezioan dagoeneko kontuan hartu den % 7,5eko kenketa, 9/2011 Errege Lege Dekretua aplikatuz % 15ekoa izatera pasatuko da, eta, beraz, 2011ko azaroaren 1etik aurrera egindako eskaeren fakturetan, kenketa berriak eragindako sendagaiei dagokienez, % 15eko kenketa hori aplikatzearen ondorioz kontratuan ezarritako prezioa txikitu egin beharko da. Azaroaren 1etik aurrerako eskaeretan erosketa-prezio berria hasieran aplikatutako % 7,5 kendu eta emaitzari % 15a aplikatzearen ondoriozkoa izango da.

EGUNGO EGOERA: SAP – Aldabidearen bidez aldatutako prezioak. Dagoeneko aldatutako prezioetan egingo dituzte eskaerak zerbitzu-erakundeek.

FORMULA APLIKAGARRIA

$$\text{Erosketa-prezio berria (BEZik gabe)} = \frac{\text{azaroaren 1a baino lehenagoko prezioa (BEZik gabe)}}{0{,}925} \times \frac{0{,}85}{}$$

ERREFERENTZIA-ZERRENDA: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak bere web-orrian argitaratutakoa: maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuaren 10. artikuluak ezarritako % 15eko kenketak eragindako sendagaiei buruzko informazio-zerrenda. Errege Lege Dekretu horren bidez, defizit publikoa murrizteko ezohiko neurriak onartu ziren; Errege Lege Dekretu hori, bestalde, abuztuaren 19ko 9/2011 Errege Lege Dekretuak aldatu zuen (http://www.msps.es/profesionales/farmacia/notasInfor.htm).

2.– 2011ko azaroaren 1ean oraindik esleitu gabe dauden espedienteetan, non % 7,5eko kenketa dagoeneko sartuta dagoen lizitazio-prezioan, eta non 9/2011 Errege Lege Dekretua aplikatuz % 15a aplikagarri izango zaion eskaintza onenari, honako bi prezio hauen artean txikiena hartuko da esleipeneko aleko preziotzat.

– eskaintza onenak eskainitako prezioa.

– lizitazio-prezioari % 15eko kenketa aplikatzetik ateratako prezioa, aurretik zuen % 7,5a kendu eta gero.

EGUNGO EGOERA: Egoera honetan hiru espediente kontabilizatzen dira.

FORMULA APLIKAGARRIA: Honako hauen artean txikiena:

- eskaintza onenak eskainitako prezioa.
- lizitazio-prezioari % 15eko kenketa aplikatzetik ateratako prezioa, aurretik zuen % 7,5a kendu eta gero, formula honen arabera:

$$\text{Ateratako prezioa (BEZik gabe)} = \frac{\text{Lizitazio-prezioa (BEZik gabe)}}{0{,}925} \times 0{,}85$$

ERREFERENTZIA-ZERRENDA: Osasun, Gizarte Potilika eta Berdintasun Ministerioak hilero bere web-orrian argitaratzen duena: http://www.msps.es/profesionales/farmacia/notasInfor.htm

3.– 2011ko urriaren 14tik aurrera hasitako espedienteetan –% 15eko kenketak eragindako sendagaien behin-behineko zerrenda argitaratu zeneko eguna–, lizitazio-prezioek sartuta daukate dagokien kenketa, eta, beraz, eskainitako prezioei ez zaie bestelako kenketarik aplikatuko.

III.II.– Erosketa ez zentralizatua.

Modu ez zentralizatuan egindako erosketei dagokienez, non 2011ko azaroaren 1a baino lehenagoko erosketa-prezioak dagoeneko sartuta baitzuten % 7,5eko kenketa, 9/2011 Errege Lege Dekretua aplikatuz % 15ekoa izatera pasatuko da eta, beraz, 2011ko azaroaren 1etik aurrera egindako eskaeren fakturetan, kenketa berriak eragindako sendagaiei dagokienez, % 15eko kenketa hori aplikatu eta kontratuan ezarritako prezioa txikitu egin beharko da. Azaroaren 1etik aurrera egindako eskaeretako erosketa-prezio berria hasieran aplikatutako % 7,5 kendu eta emaitzari % 15a aplikatzearen ondoriozkoa izango da.

EGUNGO EGOERA: erosketa guztiak esparru-kontratutik kanpo.

FORMULA APLIKAGARRIA:

$$\text{Erosketa-prezio berria (BEZik gabe)} = \frac{\text{azaroaren 1a baino lehenagoko prezioa (BEZik gabe)}}{0{,}925} \times 0{,}85$$

ERREFERENTZIA-ZERRENDA: Osasun, Gizarte Potilika eta Berdintasun Ministerioak hilero bere web-orrian argitaratzen duena: http://www.msps.es/profesionales/farmacia/notasInfor.htm